

**EKAINAREN 28a LESBIANEN, GAYEN, TRANSEXUALEN, INTERSEXUALEN ETA
QUEEREN NAZIOARTEKO EGUNA**

1969ko ekainaren 28a data historikotzat jotzen da lesbianen, gayen, transexualen, intersexualen eta queeren liberazio-mugimendurako. Stonewall-eko gertaerak (New Yorkeko pub bat) ekainaren 27tik 28ra bitarteko gauean izan ziren. Gau hartan, transexual, lesbiana eta gay talde bat matxinatu egin zen, poliziak kolektibo horien kontra egiten zituen abusuak salatzeke eta, horrela, beren eskubideak erreklamatzeko. Beren eskubideak defendatzeko elkartzen ziren lehen aldia ez bazen ere, oraingo honetan, sexualitate eta genero ezberdinetako pertsonen isolatuak egoteari utzi zioten eta elkartu egin ziren, diskriminatzen zituen sistema baten bidegabekerien kontra borrokatzeko, ikusgai bihurtzeko eta beren eskariak publiko egiteko.

Ospakizun horren kariaz, Lasarte-Oriako Udaltzarrekook gaitzetsi egin nahi dugu LGTBIQ pertsonen nozitzen duten diskriminazioa, eta beste urte batez berretsi nahi dugu sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen kariazko aurreiritzien eta diskriminazioaren kontra borrokatzeko gure konpromisoa.

LGTBIQ kolektiboek eta mugimendu feministak egindako borrokari esker, azken urteotan garrantzizko lege-aldaketak eta funtsezko eskubide zibil batzuen ekiparazioa lortu da. Hala ere, Gayen, Lesbianen, Bisexualen, Transgeneroen eta Intersexualen Nazioarteko Elkartek (ILGA) egindako txostenak garrantzizko murrizketak nabarmentzen ditu osasun publikoaren eta zerbitzu sozialen arloan Espainiar Estatuan, hala nola gizonezko bikotekiderik gabeko emakumeak erreproduzio asistituko tekniken estalduratik kanpo uztea, horrek lesbianak eta emakume bisexualak edo bikotekiderik gabe ama izan nahi dutenei eragiten baitie, edo nahitaez ezkondu beharra baldin eta sexu bereko bi pertsonak baterako gurasotasuna eskuratu nahi badute.

Era berean, osasun sexualaren esparruan lan egiten duten organizazio eta elkarrekin, eta zehazki GIB/HIESaz arduratzen direnek, agerian jartzen dute ez direla beharrezko neurri legislatiboak artikulatzen GIBarekin bizi diren pertsonen diskriminazioa eragozteko lanbide edo zerbitzuetara heltzeko orduan, hala nola adineko pertsonentzako egoitzak edo osasuneko eta bizitzako aseguruak. Halaber jartzen dute agerian adostasun politiko zabaleko estatu-itun bat falta dela GIBari eta HIESari erantzuteko neurrian inguruan eta alderdi prebentibo eta klinikoetan nahiz sozialetan nozitzen diren diskriminazioaren eta estigmaren inguruan, esparru horretan esku hartzeko egoera baten aurrean marko egonkor bat ezarriko duena.

Homofobiaren, Lesbofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Nazioarteko Egunarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzak berak salatu zuen ikusezintasunean eta ezkutapenean aurkitzen direla pertsona horietako asko, bereziki lesbianak, transexualak, adinekoak edo desgaituak badira. Errealitate horrek, kolektibo horrenganako agresio fisikoak gehitzearekin batera, agerian uzten du ezberdintasuna bizitzeko eta espresatzeko benetako askatasuna falta dela, ezen-eta aurreiritziek, uste faltsuek, estereotipoek, arbuioak eta batzuetan gorrotoak zoritxarrez jarraitzen baitute sektore sozial askoren barruan.

Gainera, Arartekoaren azken txostenak dioenez, Euskal Herriko LGTBIQ kolektiboek nabarmendutako arazo nagusien artean, azpimarratzen da ezen, hezkuntzaren esparruan eragiteko ahalegin handia egiten ari badira ere, garrantzizkoa dela dibertsitate afektibo-sexualaren eta generozkoarenganako errespetua bultzatzen jarraitzea, bai halaber ikastetxeak material didaktikoez hornitzea eta jazarpen lesbo-homofobikoa eskolako jazarpenaren protokoloetan sartzea. Instituzio horrek berorrek orobat nabarmentzen du beharrezkoa dela sexu bereko bikoteen arteko bortizkeria ikusgai egitea eta horren ondoriozko arazoei heltzea; kezka garria dela udal-ordenantza murriztaileek askatasun sexualak mugatzea eta komeni dela Berdindu (LGTBIQ informazioko eta arretako zerbitzua) dotazio ekonomiko handiagoarekin hornitzea.

Gainera, pertsona transexualei eragiten dieten arazo nagusiek zerikusia dute sexuz aldatzeko prozesu sanitario eta legetatik eratorritakoekin. Aurrerapausoak egin badira ere, transexualitateak trastornotzat

hartua izaten jarraitzen du, ezen eta, dokumentazioan izena aldatzeko tramiteak egiterakoan, pertsona horiei ziurtagiri psikiatriko/psikologikoa eskatzen segitzen baita eta horrek eskubiderik funtsezkoenari erasotzen baitio: pertsonen identitatea bera.

Hori dela eta, GEHITU elkarteak udalbatzar honetan proposatzen du ondoko jarduketa hauek garatzea esparru munizipalean:

- Bere posizionamendurik irmoena agertzea LGTBIQ kolektiboaren kontrako aurreiritzi eta agresioen aurka, eta pertsona guztiek askatasun sexual eta afektiboa izateko, beren identitatea definitzeko eta beren erlazioak hautatzeko eskubidea dutela aldarrikatzea.
- Homofobiaren, lesbofobiaren eta transfobiaren kontra informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea, herritarrengan kontzientzia solidario berri bat sortzeko helburuarekin, kolektibo horienganako errezeloak ezabatzen eta jarrera aldatzen lagunduko duena.
- Bere eskumenen neurrian, ONUSIDAK bultzatutako “Parisko Deklarazioa” babestea / berrestea, haren bidez HIESaren epidemia mundu mailan 2030. urterako amaitu ahal izatea lortu nahi baita.
- Hezkuntza-sistema errespetuzko eta tolerantziatzeko eremu bat izan dadin arduratzea, identitatearen eta generoaren kariatzko presiorik, agresiorik edo diskriminaziorik gabea, hura osatzen duten ikasleei, irakasleei eta familiei anparo emanaz. Era berean, hezkuntzaren esparruan agertzen diren generozko espresio guztienganako errespetua segurtatzea.
- Koedukazioko Proiektuaren bitartez, Lasarte-Oriako ikastetxeak beharrezko lanabesez hornitzea, diskriminazio hori nozitzen ari izan daitezkeen ikasleei txikitatik lagun egiteko eta sostengu emateko. Era berean, irakasleak lanabes eta material edukatiboez hornitzea eta sostengu ematea, dibertsitate afektibo-sexualarenganako eta generozko identitatearenganako errespetuari behar bezala heltzeko modua izan dezaten.
- Eusko Jaurlaritzari premiazko eskea egitea beharrezko protokoloak presta eta zabal ditzan, jaiotakoan esleitutakoaz bestelako genero-identitateko jarrerak agertzen dituzten adingabeenganako edozein diskriminazio-mota detektatzeko, prebenitzeko eta suntsitzeko helburuarekin, arreta berezia jarritz eskolako jazarpenaren kontrako neurrietan, funts publikoekin finantzatutako atentzio edukatiboko zerbitzu eta zentroetan aplikatu daitezkeen, titulartasun publikokoetan bezala pribatukoetan ere.
- Ekainaren 28an ostadar-bandera ikusteko moduan ipintzea Lasarte-Oriako udaletxearen fatxadan.

EL 28 DE JUNIO DÍA INTERNACIONAL POR LOS DERECHOS DE LESBIANAS, GAYS, TRANSEXUALES, INTERSEXUALES Y QUEERS

El 28 de junio de 1969 se considera una fecha histórica para el movimiento de liberación de Lesbianas gays, transexuales, intersexuales y queers. Los sucesos de “Stonewall”, un pub de Nueva York, ocurrieron la noche del 27 al 28 de junio, cuando un grupo de transexuales, lesbianas y gays, se amotinaron para denunciar abusos que cometía la policía hacia estos colectivos y así reclamar sus derechos. Aunque no era la primera vez que se unían para defender sus derechos, en esta ocasión, personas con sexualidades y géneros diversos, dejaron de permanecer aisladas y se unieron para luchar contra las injusticias de un sistema que les discriminaba, visibilizarse y hacer públicas sus demandas.

Con motivo de esta celebración, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria queremos condenar la discriminación que sufren las personas LGTBIQ y ratificar un año más nuestro compromiso de la lucha contra los prejuicios y la discriminación por motivo de orientación sexual e identidad de género.

Gracias a la lucha mantenida por los colectivos LGTBIQ el Movimiento Feminista, en los últimos años se han logrado importantes cambios legales y la equiparación de algunos derechos civiles fundamentales. No obstante, el informe elaborado por la Asociación Internacional de Gays, Lesbianas, Bisexuales, Transgénero e Intersexuales (ILGA) destaca serias restricciones en materia sanitaria y de servicios sociales en el Estado Español, tales como la exclusión de las mujeres sin pareja masculina de la cobertura de la técnicas de reproducción asistida, que afecta a las lesbianas y a mujeres bisexuales o aquellas que quieren ser madres sin pareja; la obligatoriedad de contraer matrimonio si dos personas del mismo sexo quieren acceder a la parentalidad conjunta.

Así mismo, las organizaciones y asociaciones que trabajan en el ámbito de la salud sexual, y concretamente VIH/SIDA, ponen de manifiesto que no se articulan las medidas legislativas necesarias para impedir la discriminación de las personas que viven con VIH en el acceso a profesiones o servicios, como las residencias para personas mayores o seguros de salud y vida. También ponen de manifiesto la carencia de un pacto de estado, con un amplio consenso político en torno a medidas de respuesta al VIH y Sida, el estigma y la discriminación tanto en los aspectos preventivos y clínicos, como en los sociales que establecen un marco estable ante una situación de intervención en este ámbito.

Coincidiendo con el Día Internacional Contra la Homofobia, Lesbofobia y Transfobia, el propio Gobierno Vasco denunció la invisibilidad y la ocultación en la que se encuentran muchas de estas personas, especialmente si son lesbianas, transexuales, mayores o personas con discapacidad. Esta realidad, acompañada por el incremento de las agresiones físicas hacia este colectivo, evidencia una falta de libertad real para vivir y expresar la diversidad, ya que los prejuicios, las falsas creencias, los estereotipos, el rechazo y a veces el odio continúan desgraciadamente en el interior de muchos sectores sociales.

Además, según el último informe del Ararteko, entre los principales problemas destacados por los colectivos LGTBIQ de Euskal Herria, se destaca, que aunque se está haciendo un gran esfuerzo para incidir en el ámbito educativo, es importante continuar promoviendo el respeto a la diversidad afectivo sexual y de género y dotar a los centros educativos de materiales didácticos e introducir el acoso lesbo-homo-transfóbico en los protocolos de acoso escolar. Esta misma institución, también destaca la necesidad de visibilizar y abordar los problemas derivados de la violencia entre las parejas del mismo sexo; la preocupación de que las libertades sexuales sean limitadas por ordenanzas municipales restrictivas y la convivencia de aumentar la dotación económica a Berdindu (Servicio de información y atención LGTBIQ).

Además, los principales problemas que afectan a las personas transexuales están relacionados con los que derivan de los procesos sanitarios y legales de cambio de sexo. A pesar de los avances que se han registrados, la transexualidad sigue siendo considerada un trastorno, ya que para realizar los trámites del

cambio de nombre en la documentación se sigue exigiendo a éstas personas un certificado psiquiátrico/psicológico que atenta contra el derecho más fundamental, a la propia identidad de las personas.

Es por ellos, que la asociación GEHITU, propone en este pleno el desarrollo de las siguientes actuaciones en el ámbito municipal:

- Mostrar su más firme posicionamiento en contra de los prejuicios y las agresiones contra el colectivo LGTBIQ, y proclamar el derecho de todas las personas a la libertad sexual y afectiva, a definir su identidad y elegir sus relaciones.
- Promover campañas de información y sensibilización contra la homofobia, lesbofobia y transfobia, con el objetivo de crear una nueva conciencia ciudadana solidaria, que favorezca el cambio de actitud y la supresión de los recelos dirigidos hacia estos colectivos.
- Apoyar / Ratificar en la medida de sus competencias la “Declaración de París“, impulsada por ONUSIDA, a través de la cual se pretende poder poner fin a la epidemia de sida a escala mundial para el año 2030.
- Velar para que el sistema educativo sea un espacio de respeto y tolerancia libre de toda presión, agresión o discriminación por motivos de identidad y género, con amparo a los estudiantes, docentes y familias que los componen. Asimismo, asegurar el respeto a todas las expresiones de género presentadas en el ámbito educativo.
- Dotar, a través del Proyecto de Coeducación, a los centros escolares de Lasarte-Oria de las herramientas necesarias para acompañar y apoyar desde edades tempranas al alumnado que puede estar sufriendo esta discriminación. Así como dotar y apoyar al profesorado de herramientas y materiales educativos para que puedan abordar debidamente el respeto a la diversidad afectivo-sexual y de identidad de género.
- Instar al Gobierno Vasco a elaborar y difundir los protocolos necesarios con el fin de detectar; prevenir y combatir cualquier forma de discriminación de los menores que manifiesten actitudes de una identidad de género distinta a la asignada al nacer, con especial atención a las medidas contra el acoso escolar y el hostigamiento, para su aplicación en servicios y centros de atención educativa financiados con fondos públicos, tanto de titularidad pública como privada.
- Colocar el 28 de junio la bandera arco iris en un lugar visible de la fachada del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.